ARRASATEKO UDALA

Arrasateko Udalaren 2022. urterako diru laguntza deialdia euskararen erabilera sustatzen duten elkarte eta entitateentzat. BDNS (Identif.): 617161.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/617161).

Onuradunak.

Jardute eremua Arrasaten duten entitateek eskatu ahal izango dute diru laguntza, baldin eta haien jarduerak deialdi honetako helburuarekin bat egiten badu.

Helburua.

2022an euskararen erabilera sustatzeko planak antolatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei diru laguntzak emateko baldintzak arautzea. Diruz lagunduko diren horiek, aldizkako programak edo noizean behingo jarduerak izan daitezke.

Oinarri arautzaileak.

Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko martxoaren 17an diru laguntzen oinarri orokorrak eta Arrasaten Euskararen erabilera sustatzen duten elkarte eta entitateei diru laguntzak emateko oinarri zehatzak onartu ditu.

Pertsona interesdunak Udalaren web orrian aurkituko dute informazio xehatua:

https://www.arrasate.eus/eu/udala/dirulaguntzak/tramiteak_taldeka?taldea=W-DIRULAGUNTZAK.

Zenbatekoa.

Programa honetara bideratutako diru laguntzen zenbatekoa 58.374 €-koa da, eta «1.02.10.471.335.00.00 - Euskarako diru laguntzak» kontu-sailaren kontura finantzatuko da.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Diru laguntza eskabideak aurkeztu ahalko dira:

— Udalaren egoitza elektronikoaren bidez: https://www.arrasate.eus/eu/tramiteak/eskabide-orokorra (pertsona juridikoek ezinbestean bide hau erabili beharko dute).

— Aurrez aurre BAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), pertsona fisikoentzako aukerakoa.

— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako gainerako moduetan.

Eskabideak, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean aurkeztu behar dira.

Arrasate, 2022ko apirilaren 6a.—Maria Ubarretxena Cid, alkatea. (2200)

AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Convocatoria del programa de subvenciones 2022 del Ayuntamiento de Arrasate a las asociaciones y entidades que fomentan el uso del euskera. BDNS (Identif.): 617161.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/617161).

Beneficiarios.

Entidades cuyo ámbito de actuación se encuentre en Arrasate, y cuya actividad es conforme con el objeto de la presente convocatoria.

Objeto.

Regular las condiciones de concesión de subvenciones a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro con el objeto de organizar planes de fomento del uso del euskera durante el ejercicio de 2022. Los programas subvencionables podrán ser periódicos o bien actividades puntuales.

Bases reguladoras.

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Arrasate en la sesión del 17 de marzo de 2022, ha aprobado las bases generales de subvenciones y las bases específicas de concesión de subvenciones a las asociaciones y entidades que fomentan el uso del euskera en Arrasate.

La información detallada se encuentra a disposición de las personas interesadas en la página web del Ayuntamiento:

https://www.arrasate.eus/es/ayuntamiento/subvenciones/tramiteak_taldeka?taldea=W-DIRULAGUNTZAK.

Cuantía.

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa es de 58.374 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria «1.02.10.471.335.00.00 - Subvenciones Euskara».

Forma y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes de subvención podrán presentarse:

— A través de la sede electrónica del Ayuntamiento, en la dirección https://www.arrasate.eus/es/tramites-online/portal-del-ciudadano (obligatorio para las personas jurídicas).

— Presencialmente en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía), opcional para las personas físicas.

— En las demás formas legalmente previstas conforme a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Mondragón, a 6 de abril de 2022.—La alcaldesa, Maria Ubarretxena Cid. (2200)

EK\CV GAO-I-2022-02200